

## Midnight Boogie Weekend



Urtero azaroan/abenduaren

**Vital Fundazioak eta Midnight Boogie elkarte kulturalak** 'Midnight Boogie Weekend' jaialdia antolatzen dute. Jaialdi horrek, berriz ere, soul musikaren zaleak bilduko ditu Arabako hiriburuan, ez baitute estilo horretaz gozatzeko aukera askorik.

### Informazioa

Indartsu iritsi zen 70eko eta 80ko hamarkadetan, banda handien bitartez eta gazteek Estatu Batuetara edo Ingalaterrara egiten zituzten bidaietatik euren mailetan ekartzen zituzten diskoen bitartez, soul eta R&B musika gospeletik hurbil dauden soinuetatik hasi eta funk edo jazzerraino iristen da, rhythm & blues eta rock & rolletik ere igarota.

Kontzertu aretoan musika saioak zuzenean emateaz gain, '**Midnight Boogie Weekend**' jaialdiak filmak edo dokumentalak ere emango ditu, baita DJ saioak eta musika-tailer bat ere, estilo hori etxeko txikienei hurbiltzeko helburuz.

### Abonuak

Abonuak 40€tan eskura daitezke [www.helldorado.net](http://www.helldorado.net)

# Sarrerak

Sarreraren erosketa hurrengo "ekitaldiak" atalean egin daiteke: